Xedapen Orokorrak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

Zk-2516

AGINDUA, 2001eko apirilaren 3koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, igogailuen instalazioetan giltza nola erabili arautzen duena eta igogailuaren liburua erabili behar dela ezartzen duena.

1988ko urtarrilaren 12ko Aginduak xedatzen du derrigorrezkoa dela makina-gelako giltzak sartzeko kutxatxo bat ipintzea makina-gela ondoan, eta kutxatxoa gai hauskorrekoa izan behar dela.

Esan behar da, autonomia erkidegoko igogailu guztietako kabinetan ateak ipini direnetik, ez dagoela igogailuko ateek harrapatu eta istripua izateko arriskurik. Izan ere, gaur egun gerta daitekeen gauza bakarra da norbait igogailuaren kabinan harrapatuta geratzea, eta handik irtetzeko itxaroten egon behar izateagatik, estutasun edo klaustrofobia sintomak izatea.

Bestalde, egun igogailuen titular gehienek daukate kontratatuta 24 orduko emergentzia zerbitzuren bat. Gainera, kontuan hartzekoa da instalazio berriek norabide bikoitzeko komunikazio sistema bat dutela mantenimendua egiten duen enpresarekin. Hori horrela izanik, ez da beharrezkoa auzokide gehienek solairu bakoitzeko ateko giltzak izatea edo makina-gelan sartzeko giltza izatea.

Horiez gain, mentenimenduko enpresari dei egiten zaionetik etortzen denera denbora tarte laburra itxaron behar denez, ez da beharrezkoa izaten auzokideak ibiltzea kabinan harrapatutako jendea ateratzen. Izan ere, auzokideak ez daude horretarako behar bezala gaituta, eta gerta daiteke, lagundu beharrean kalte egitea harrapatuta dagoen pertsonari, bai eta euren buruari ere, zuloan behera jausi daitezkeelako, ate bat ireki eta igogailuaren kabina bertan ez badago.

Horren guztiaren ondorioz, ez da beharrezkoa igogailu ondoan giltzak gordetzeko kutxatxo hauskorrik ipintzea, nahiz eta hala agindu 1988ko urtarrilaren 12ko Aginduaren 2. artikuluak.

Bestalde, 2001eko apirilaren 3ko Agindu honek xedatzen du auzokideek jabeen elkarteko arduradunari edo lehendakariari eman beharko dizkiotela derrigorrean haiek dauzkaten solairuetako ateetako eta makina-gelako giltza guztiak. Xedapen horren asmoa Agindua eraginkorra izango dela bermatzea da.

Esandako guztiaz gain, aipatu behar da oraindik istripuak egoten direla igogailuarekin zerikusia duten hainbat jarduera burutzean (ateak pintatzea, makina-

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

Nº-2516

ORDEN de 3 de abril de 2001, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por el que se regula la utilización de llaves en las instalaciones de ascensores y se establece la utilización del libro del ascensor.

La Orden de 12 de enero de 1988, establece la obligación de que se instale un cajetín de material rompible, anexo al cuarto de máquinas, que contenga las llaves del referido cuarto de maquinas.

Hoy en día, con la instalación de puertas en cabina en todos los ascensores de la Comunidad Autónoma, se ha conseguido eliminar el riesgo de accidentes por atrapamiento, existiendo únicamente la posibilidad de que queden personas encerradas en la cabina que puedan presentar estados de ansiedad o síntomas de claustrofobia, motivados por la posible tardanza en el rescate de las mismas.

En la actualidad, la mayoría de los titulares de ascensores tienen contratado el servicio de atención de emergencias 24 horas, y por otra parte, se debe tener en cuenta que las nuevas instalaciones ya disponen de un sistema de comunicación bidireccional con la empresa conservadora. Por todo ello, no es preciso que la generalidad de los vecinos dispongan de llaves de puertas de piso o de acceso al cuarto de máquinas.

Por otra parte, el tiempo medio de respuesta del conservador ante un aviso, en la mayor parte de los casos, hace innecesario que el rescate se realice por unos vecinos no suficientemente capacitados, que podrían, incluso, causar más daño que beneficio a la persona encerrada o a ellos mismos, al poder caer por el hueco del ascensor si abren una puerta sin estar la cabina en el piso.

En consecuencia, ya no resulta necesario que se disponga de un cajetín rompible donde se guarden las llaves del cuarto de maquinas, tal como establece el artículo 2 de la referida Orden.

Para garantizar la efectividad de esta Orden, se establece, además, la obligación de entregar al responsable o presidente de la comunidad de propietarios todas las posibles llaves de puertas de piso y del cuarto de máquinas que se encuentren en poder de los vecinos.

Por otra parte se vienen registrando accidentes derivados de la falta de seguridad en otras operaciones relacionadas con el ascensor (pintado de puertas o del

gela pintatzea eta abar), eta, horregatik, jarduera horiek burutzeko, ezinbestekoa da mantenimenduko enpresaren jarraibideak betetzea.

Azkenik, beharrezkotzat jotzen da mantenimenduko operazio guztiak liburu batean jasotzea. Liburu horretan, beraz, aparailuaren mantenimenduari buruzko gertakari guztiak jaso beharko dira.

Hori guztia kontuan hartuta, eta Industria eta Meategiak Administratzeko Zuzendaritzaren proposamenez, honakoa

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Solairuko ateetako giltza.

Igogailuen instalazio bakoitzak solairuko ateetako giltza bakarra izango du. Giltza hori eta giltza erabiltzeko jarraibideek makina-gelan egon beharko dute. Jarraibide horietan adieraziko da nola jokatu behar den, kontu handiz, igogailuaren katigamenduak askatzen badira, eta katigamenduak askatu ostean, ez badira berriro katigatzen. Horrez gain, igogailua martxan jartzeko jarraibideak ere jasoko ditu.

2. artikulua.– Makina-gelako giltzaren kopia eta giltza erabiltzeko jarraibideak.

1.– Jabeen elkarteko arduradunak, lehendakariak, administratzaileak, atezainak edo horren antzeko besteren batek izan beharko du makina-gelako giltzaren kopia. Makina-gelarik ez badago, maniobra-koadroko giltzaren kopia izan beharko du. Giltzaz gain, jarraibideak ere izango ditu, idatziz, eta jarraibideetan egongo da azalduta zeintzuk arrisku dauden makina-gelan, zeintzuk arrisku dauden erreskateak egiteko elementuak erabiltzean eta zeintzuk erantzukizun hartzen dituen beregain pertsona horrek, giltza txarto erabiliz gero.

2.– Igogailua erabiltzen duten gainontzeko auzokideek jabeen elkarteko arduradunari edo lehendakariari eman beharko dizkiote haiek dauzkaten solairuko ateetako giltzak eta makina-gelako giltzak.

3. artikulua.– Egun dauden kutxatxoak.

Kendu egin beharko dira gaur egun instalazioetan dauden kutxatxo hauskarri guztiak, edo bestela, kutxatxoan giltza dagoela adierazten duen oharra ezabatuko da.

4. artikulua.– Mantenimendua egiten duen enpresaren jarraibideak.

Instalazioan jardueraren bat burutu behar bada (solairuko ateak edo makina-gela pintatzea eta abar), eta jarduera horiek igogailuaren edo makina-gelaren segurtasuna kaltetu badezakete, mantenimendua egiten duen enpresak emandako jarraibideak kontuan hartuta egin beharko dira.

5. artikulua.– Igogailuaren liburua.

cuarto de maquinas, etc.), resultando necesario que las mismas se realicen siguiendo las instrucciones del conservador.

Por último, resulta necesario que todas las operaciones de mantenimiento queden reflejadas en un libro en el que se anoten todas las incidencias relativas a la conservación del aparato.

En su virtud, a propuesta de la Dirección de Administración de Industria y Minas,

DISPONGO:

Artículo 1.– Llave de puertas de piso.

Las instalaciones de ascensores dispondrán de una llave de puertas de piso por instalación, que deberá permanecer en el cuarto de máquinas junto con sus instrucciones de utilización, en las que se especificarán las indispensables precauciones a tomar para evitar los accidentes derivados de un desenclavamiento que no sea seguido de un enclavamiento efectivo, así como, las instrucciones de accionamiento.

Artículo 2.– Copia de la llave del cuarto de máquinas e instrucciones de uso.

1.– El responsable de la comunidad, presidente, administrador, portero o similar, etc., dispondrá de una copia de la llave del cuarto de máquinas o del cuadro de maniobras en las instalaciones que no dispongan de dicho cuarto de máquinas, con instrucciones escritas que especifiquen el riesgo existente en el propio cuarto de máquinas, así como, en la manipulación de los elementos de rescate y la responsabilidad que se asume en caso de un uso indebido de la referida llave.

2.– El resto de usuarios de los ascensores deberán entregar todas las llaves de puertas de piso o del cuarto de máquinas que se encuentren en su poder al responsable o presidente de la comunidad.

Artículo 3.– Cajetines existentes.

Deberá procederse a la eliminación de cajetines rompibles en las instalaciones existentes o a anular la indicación de que contienen las llaves.

Artículo 4.– Instrucciones de la empresa conservadora.

Todas las actuaciones que deban realizarse en las instalaciones que afecten a la seguridad del ascensor o del cuarto de máquinas (pintado de puertas de piso o del cuarto de maquinas, etc.), deberán ser realizadas siguiendo las instrucciones de la empresa conservadora.

Artículo 5.– Libro de ascensor.

1.– Instalazioek igogailuaren liburu bana izan beharko dute. Liburua makina-gelan egon beharko da. Instalazioek makina-gelarik ez badute, orduan maniobra-koadroan egon beharko da. Bestalde, industria-segurtasunaren arloan eskumena duen zuzendaritzak ebazpen baten bidez onartuko du liburu horren eredua.

2.– Instalazioren batek lehendik badu igogailuaren liburua, ez du liburua aldatu beharrik izango, ez eta liburuaren formatoa aldatu beharrik ere.

3.– Mantenimenduaz arduratzen den enpresak egingo ditu liburuaren gaineko izapideak, eta liburua industria-segurtasunaren arloan eskumena duen organoaren eskura izango dira beti. Bestalde, liburuak honako atalak jaso beharko ditu gutxienez:

– Instalazioaren ezaugarriak.
– Mantenimeduko ikuskapenen ezaugarriak.
– Aldiroko ikuskapen ofizialen zerrenda.
– Instalazioan egindako konponketa garrantzitsuak.
– Instalazioaren jabearen betebeharrak.
– Mantenimeduko enpresaren betebeharrak.
– Hileroko mantenimeduko ikuskapenak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Lehenengoa.– Indargabetu egiten da 1988ko urtarrilaren 12ko Aginduaren 2. artikulua. Izan ere, artikulu horrek xedatzen du etxebizitzetan instalatutako igogailu elektromekaniko berriek derrigorrean izan behar dutela abiadura biko motorra, eta derrigorrezkoa dela makina-gela ondoan kutxatxo hauskarri bat ipintzea, bertan makina-gelako giltza gordetzeko.

Bigarrena.– Era berean, indargabetu egiten da Agindu honetan ezarritakoaren kontrakoa dioten xedapen guztiak, Agindu honen maila berekoak edo beheragoko mailakoak badira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu hau garatu eta burutzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko ahalmena aitortzen zaio industria-segurtasunaren arloan eskumena duen zuzendaritzari.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik hogei egunera sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko apirilaren 3a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

1.– Las instalaciones deberán disponer de un libro de ascensor en el cuarto de máquinas o en el cuadro de maniobras en las instalaciones que no dispongan de dicho cuarto de máquinas, de acuerdo con el modelo que se apruebe por resolución de la Dirección competente en materia de seguridad industrial.

2.– En aquellas instalaciones en las que ya exista el referido libro no será necesaria su sustitución, pudiendo mantenerse en el mismo formato.

3.– Dicho libro, será diligenciado por la empresa conservadora y estará a disposición del órgano competente en materia de seguridad industrial, debiendo contener, como mínimo, los siguientes apartados:

– Características de la instalación.
– Alcance mínimo de las revisiones de mantenimiento.
– Relación de Inspecciones oficiales periódicas.
– Reparaciones importantes.
– Obligaciones del propietario de la instalación.
– Obligaciones de la empresa conservadora.
– Revisiones mensuales de mantenimiento.

DISPOSICIONES DEROGATORIAS

Primera.– Queda derogado el artículo 2 de la Orden de 12 de enero de 1988, del Departamento de Industria y Comercio, por la que se establece la obligación de que los nuevos ascensores electromecánicos instalados en viviendas posean un motor de dos velocidades, y de que se instale un cajetín de material rompible en caso de necesidad, anexo al cuarto de máquinas, que contenga las llaves de éste.

Segunda.– Así mismo, queda derogada toda disposición de igual o inferior rango que se oponga a lo establecido en la presente Orden.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Se faculta a la Dirección competente en materia de seguridad industrial, para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución de la presente Orden.

Segunda.– La presente Orden entrará en vigor a los veinte días de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de abril de 2001.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.